

TXOSTENA

Gipuzkoako erreforma fiskala egiteko ponentzia: ondorioen txostena.

Aurrekariei buruz

Gipuzkoako Batzar Nagusiek, 2023ko urrian egindako osoko bilkuran, ebazpen bat onetsi zuten aho batez, eta haxe eskatu zioten Foru Gobernuari:

- Amai zezala 2014. eta 2018. urteetako erreforma fiskalen ondorioen ebaluazioa.
- Parteka zezala ebaluazio hori kontrol teknikoko organismoarekin eta hiru lurralde historikoetako Batzar Nagusiekin.
- Aurkez zezala Foru Aldundiak ebaluazio hori Batzar Nagusien Gipuzkoako egoitzan 2023a amaitu baino lehen.
- Abiaraz zitzala egoki iritzitako aldaketak, gure fiskalitatearen bidezkitasuna, progresibotasuna, ekitatea eta elkartasuna ziurtatzeko, helburu gisa harturik zerbitzu publikoak indartzea eta ekintzailatzari, enpresa txiki eta ertainei eta kalitatezko enplegua sortzen duen ekonomiari laguntzea, eta, hartara, desberdintasun sozialak eta aztarna ekologikoa murrizteko beharrezko baldintzak sortzea, inor ez dadin atzean geratu.

Zorrotz bete dira eskakizun horiek guztiak. Ildo horretan, Gipuzkoako Batzar Nagusietako Ogasun eta Finantza Batzordeak, 2023ko azaroaren 7an egindako bileran, erabaki zuen erreforma fiskalari buruzko ponentzia bat sortzea, helburu gisa harturik “erreforma justu eta progresibo bat taxutzea, zeinaren bidez aztertuko baitira herrialde aurreratuenean mundu zabalean dituzten jardunbide onenak, bai progresibitatearen ikuspegitik, bai aberastasun ekonomikoa birbanatzearen ikuspegitik”.

Eta, ponentzia horren esparruan, gai haxe jorratu zen lehenbizi: pertsona fisikoen errentaren gaineko zergaren (PFEZ) eta sozietateen gaineko zergaren 2014ko eta 2018ko erreformen ebaluazio-txostenak aurkeztea.

Bi txostenek egiaztatzen dutenez, garrantzi handia dute bi tributuok egungo konfigurazioan; izan ere, jarduera ekonomikoaren lehiakortasuna sendotzen eta finantza nahikotasunaren printzipioa bermatzen dute, Euskadiko erakunde batzuen eta besteen eskumenekoak diren zerbitzu publikoak zuzkitzeko.

Gainera, txostenek ondorioztatzen dute pertsona fisikoen errentaren gaineko zergaren eta sozietateen gaineko zergaren erreformetan hartutako neurriek bete dituztela, neurri batean, proposatutako helburuak. **PFEZ**aren kasuan, hona hemen helburu horiek:

- Ekitatea eta progresibitatea indartzea.

- Zergaren neutraltasuna, gardentasuna eta sinplifikazioa areagotzea.
- Behar besteko diru bilketa bermatzea, kalitatezko zerbitzu publikoak emateko.

Sozietateen gaineko zergaren kasuan, neurri batean bete dira ezarritako helburuak; izan ere, erreformak lagundu du ekonomia suspertzen, bai eta enpresa sarea eta enpresen lehiakortasuna indartzen ere. 2008ko krisia baino lehen, Gipuzkoako Ogasunak egiten zuen diru-bilketaren %11 eta 13% artean Sozietate Zergaren bidez egiten zuen, 2014ko erreformaren egin zenean Ogasunak egiten zuen diru bilketa osoaren %6,03ko pisua zuen eta 2023an aldiz %7,38koa. Beraz Sozietateen gaineko zerga bilketaren pisua handitu egin da azken hamarkadan. Tipo efektiboei dagokienez ere datuetan igoera bat izan dela ikus daiteke:

- 2008an %15,3a
- 2013an %15,3a
- 2021ean %16,4a

Ogasuneko eta Finantzetako foru-diputatuak ebaluazio horren txostena aurkeztu ondotik, batzarkide-taldeek eskatutako agerraldi ugariei ekin zitzaion. Sektoreko 60 aditu eta irakasle inguruk, gizarte-eragileen, lanbide-elkargoen, federazioen edo hainbat erakunderen ordezkariak aukera izan dute Gipuzkoako fiskalitatearen egungo egoerari buruzko ikuspegia emateko, eta 1.000 proposamen zehatz baino gehiago egin dituzte, gizarte zibilaren eta erakundeen arteko zuzeneko lankidetzaren bidez Gipuzkoako zerga-sistema progresiboagoa, bidezkoagoa eta ekitatiboagoa izan dadin. Horregatik, bidezkoa da datozen urteetako Gipuzkoako fiskalitatea gidatuko duen dokumentu bat hobetzeko denbora eta ezagutza eskaini dieten aditu eta erakunde horiei balioa ematea eta eskerrak ematea.

Prozesu horretan, ez da ahaztu behar Gipuzkoako Foru Aldundiaren 2024-2027 aldirako Plan Estrategikoa onetsi dela. Plan horretan jasotako jarduera ildo batek (H.2.2 gisa identifikatua) berariaz egiten dio erreferentzia ekitatea, progresibotasuna eta jarduera ekonomikoaren sustapena hobetzera bideratutako zerga sistema bat diseinatzeari. Zoritxarrez, Batzar Nagusiei kendu egin zaie plan estrategikoari buruzko eztabaida eta ekarpenak egiteko aukera, ez delako ohiko eran tramitatu Gipuzkoako ganberan, aurreko plan estrategikoarekin egin zen bezala.

Erreforma fiskala onesteari buruz

Kontuan izanda, batetik, pertsona fisikoen errentaren gaineko zergaren (PFEZ) eta sozietateen gaineko zergaren 2014ko eta 2018ko erreformen ebaluazio txostenen emaitzak, bigarrenik, Gipuzkoako Foru Aldundiaren 2024-2027 Plan Estrategikoan aurreikusitakoa, eta, hirugarrenik, ponentzian erreforma fiskalari buruz jorratutako gaiak, beharrezkoa da zerga erreforma bati ekitea, Gipuzkoaren eta gipuzkoarren premietara egokiturik.

Horretarako, ezinbestekoa da Gipuzkoako Lurralde Historikoaren Erakunde Antolaketa, Gobernu eta Administrazioari buruzko uztailaren 12ko 6/2005 Foru Arauaren 70. artikuluan ezarritako izapideak betetzen dituen araugintza prozedurari ekitea, kontuan izanik zer denbora tarte behar den izapide eta prozedura horiek egiteko.

Berrikusi beharreko tributu figurak arautuko dituen foru arauaren aurreproiektuan egin asmo diren aldaketek izan dezakete eraginik zerga egitatearen, sortzapenaren, zerga oinarriaren edo oinarri likidagarriaren mugaketan; era berean, izan dezake eraginik salbuespenak, murriztapenak, hobariak, kenkariak eta gainerako zerga-onurak edo -pizgarriak ezartzean, aldatzean edo ezabatzean, edo, azken batean, tributu zorraren zenbatekoa zuzenean zehazten duten beste elementu batzuetan. Elementu horiek guztiak Gipuzkoako Lurralde Historikoko Zergei buruzko martxoaren 8ko 2/2005 Foru Arau Orokorren 7. artikuluan ezarritako foru arauaren erreserba printzipioaren mende daude.

Hori dela eta, foru arau bat egitea eta onestea da aldaketa horiei ekiteko arau bide egoki bakarra, horretarako Ekonomia Itunak Gipuzkoako foru erakundeei aitortzen dizkien ahalmenak baliaturik.

Gai honen arautzeari heldu ahal izateko, Gipuzkoako Foru Aldundiak, bere eskumenak erabiliz eta herritar guztien interesa zaintzen duen Administrazioa den aldetik, konpromisoa hartu behar du eta zerga-sistemari tresna fiskalak eman behar dizkio, beste politika publiko batzuk egitearekin batera, gipuzkoarrek egungo eraldaketei aurre egin diezaieten; horrek ez luke eragotziko, jakina, zerga-erreformari buruzko ponentziatik eratorritako ondorioak direla medio beste neurri batzuk adostu eta ezartzea.

Gogoratu behar da ez Batzar Nagusiek eta ez euskal erakundek ez dutela eskumen osorik zerga arloan. BEZaren kasuan aplikatu beharreko araudia Lurralde Erkidekoa da, eta, itundutako zergei dagokienez (PFEZ, Sozietateen gaineko Zerga, Ondarearen gaineko Zerga, eta beste), itun ekonomikoak mugatzen du araudi hori.

Nazioarteko inguruabarrei buruz

2014ko erreforma fiskala egin zenetik, jarraian zehazten diren aldi ekonomiko hauek izan dira nazioartean, eta guztiek ere izan dute eraginik eskualdeetan.

Susperraldi jarraitua (2014-2019). Joan den hamarkadaren erdialdetik aurrera, susperraldi sendoagoa eta jarraituagoa nabarmendu zen ekonomia globalean. Hazkunde ekonomikoa indartu egin zen, diru politika hedakorrek, erreforma estrukturalak eta barneko eta kanpoko eskariaren hazkundeak bultzatuta. Gipuzkoan, susperraldi horren ondorioz, hazkunde ekonomiko egonkorragoa izan zen, hobetu egin zen lan merkatua eta areagotu egin zen inbertsioa funtsezko sektoreetan, hala nola teknologian, berrikuntzan eta turismoan.

COVID-19aren krisia (2020). Aurreko urteetan izaniko susperraldi ekonomikoa gorabehera, ekonomia globalean eragin larria izan zuen COVID-19aren pandemiak, zeina 2020aren lehen hilabeteetan hasi baitzen. Osasun krisiak munduan aurrekaririk gabeko atzeraldia eragin zuen: negozioak itxita, hornidura kateak etenda eta langabezia areagotuta. Gipuzkoan ere izan zuten eraginik konfinamendu neurriek eta mugikortasun murrizketek, eta horrek uzkartze ekonomikoa ekarri zuen, batez ere 2020an. Gure ekonomiaren josturak agerian geratu ziren, eta administrazio publikoak bermatu zuen ongizate-estatua.


Nazioarteko tentsioak eta inflazioa (2022-2024). Azken urteetan, zenbait eskualdetan tentsio geopolitikoak izan dira nagusi, hala nola Errusiaren eta Ukrainaren arteko tentsioak, baita Israelen eta Palestinaren artekoak ere. Berriki, baita Ekialde Ertaineko ontzien krisiak ere. Horren ondorioz, zenbait lehengai falta izan dira, ezegonkortasun orokorragoa gailendu da, eta, ondorioz, prezioak asko garestitu dira. Horrek izan du eraginik enpresetan (ikusten zuten beren produktuak eta lehengaiak garestitzen ari zirela, eta areagotzen ari zirela, orobat, erregaien, elektrizitatearen eta gasaren gastuak). Era berean, eragin die herritarrei ere, nabarmen igo baita erosketa saskiaren, erregaiaren, elektrizitatearen eta gasaren prezioa, kasu askotan espekulazioaren ondorioz. Horren guztiaren ondorioz, mundu mailako banku zentral nagusiek interes-tasak handitu dituzte. Testuinguru horretan, eta testuinguru inflazionistari aurre egiteko, justizia sozialean sakontzeko eta zerbitzu publikoen kalitatea bermatzeko, Europako estatu asko hasi ziren korporazio handiei (besteak beste, Espainiako eta Frantziako estatuei) zerga bereziak ezartzen, Europako Batzordeak hasitako bideari jarraituz.

Azken batean, azken 10 urteetan denboran jarraitutako susperraldi bat izan da nagusi, eta, aldi berean, aurreikusi ezin diren gertaerak bizi izan dira, hala nola COVID-19aren pandemia, Ukrainako gerraren tentsio geopolitikoak eta Israel estatuaren eta Palestina herriaren arteko gatazka. Gogora ekarri behar da, halaber, mundu mailan 480 milioi dolar galtzen direla diru-kutxa publikoetarako paradisu fiskaletan, eta horrek eragin handia duela estatuen zerga-bilketan eta bilketa-eskumenak dituzten eskualde-egituretan, eta eragin handia duela zerbitzu publikoen indartzean.

Gipuzkoako ekonomiari buruz.

Inguruabar orokor horretan, lehen aipatutako arazo globalek Gipuzkoari ere eragiten diote, eta nabaritzen dira horrek lurraldeko ekonomian izaniko ondorioak.


Grafikoa. Barne produktu gordinaren bilakaera Gipuzkoan.



Iturria: Eustat


Dena den, Gipuzkoako ekonomiak hobeto eutsi dio jarduera ekonomikoak pandemian izaniko beherakada orokorrari, baita prezioen gorakadari eta horrek estatuari eragiten dizkion zor arazoei ere; hala erakusten du, konparazio baterako, langabezia tasaren bilakaerak.

Grafikoa. Langabezia tasa orokorraren bilakaera.



Iturria: Eustat eta Eurostat

Grafikoa. Gazteen langabezia tasaren bilakaera (25 urtetik beherakoak).



Iturria: Eustat eta Eurostat

Gogorarazi behar da, ordea, Europako eskualde aurreratuenek langabezia-tasa orokorrak eta gazteen langabezia-tasak hobeak dituztela, hala nola:

Flandria: %3,3 / %7.8

Sjaelland (Danimarka): %4,6 / %10,2

Hanburgo (Alemania): %4,0 / %5,6

Iturria: Eurostat

Beraz, lanean jarraitu behar da enpleguaren alorrean jardunbide onena duten eskualdeen parekoa izan dadin Gipuzkoako langabezia-tasa.

Gipuzkoako ekonomiaren jokabide onaren arrazoiaren artean, honako hauek nabarmendu behar dira: lehenik eta behin, produkzio sarea dibertsifikatzeak garapen ekonomiko orekatuagoa eta egonkorragoa ekarri du. Ildo horretan, industriaren nagusitasunak eta esportazioen garrantziak oinarri zabal eta sendoa ematen dio Gipuzkoako ekonomiari. Oinarri horrek, berriz, egonkortasuna eman dio.

Grafikoa. Esportazioen bilakaera Gipuzkoan.




Iturria: Eustat

Grafikoa. Gipuzkoako esportazioen bilakaera BPGarekiko.



Iturria: Eustat

Grafikoa. Esportazioek BPGaren gainean duten pisua (2023).



Iturria: Eustat eta Eurostat. Hedapena (AEB).


Industrian oinarritutako garapen ekonomiko dibertsifikatu hori faktore multzo baten emaitza da: tradizio eta kultura industrial, ikerketa eta garapeneko inbertsioari eman zaion lehentasuna, eta esportazioen aldeko orientazioa. Horri guztiari esker, industriak nazioarteko merkatuen funtzionamendua ezagutu du, merkatu horien estandarrak betetzen dituzten produktuak fabrikatu ditu, eta beste herrialde batzuetan saldu ahal izan ditu. Aurreko grafikoetan ikus daitekeenez, Gipuzkoa lurralde esportatzailea da argi eta garbi, eta nabarmena izan da azken hamarkadan izan duen bilakaera. Zoritxarrez, esan beharra dago Gipuzkoako industria-sareak gain behera egin duela azken urteotan, eta industria-sareak BPGan duen pisu erlatiboaren % 5,5 galdu duela (Iturria: Eustat). Alde horretatik, eta industriako enpleguari dagokionez, Europako eskualdeen rankingean 16 postu galdu dira, 66. postutik 82.era

Baina ez hori bakarrik. Izan ere, azken hamarkadan ahalegin ikaragarria egin da ikerketa eta garapenaren ingurune osoa sustatzeko eta profesionalizatzeko, berrikuntza indartzeko, eta, horrekin batera, ikerketa sare mardul bat sendotu da lurraldean. Era berean, ahalegin partekatua egin da *start up* berritzaileak sortzeko, inbertsio industria sendo baten babesarekin, enpresa sortu berri eta berritzaile horiek baliabideak izan ditzaten, mundu zabalean proiektu aitzindarietan lanean aritzeko eta jarraitzeko.

Finean, sistema ekonomikoa aldatzen ari da, eta aldatzen ari dira Gipuzkoako enpresak ere; beraz, ezin da ahaztu teknologian eta berrikuntzan oinarritutako ikuspegi berri hori. Eta horixe ekin diote Gipuzkoako enpresek, eta horixe egin behar dute ekonomia globalean lehiakortasunari eutsi nahi badiote. Era berean, gogorarazi behar da Gipuzkoako enpresa-ehunaren gehiengoa enpresa txikiek, ertainek eta mikroenpresek osatzen dutela; beraz, horiek eraldaketa digitaletara eta ekonomiaren deskarbonizaziora moldatzeko egokitze-apustua igo egin beharko da, eta sektore publikoak lidergo-rola izaten jarraitu behar du, politika integralekin.

Hurrengo grafikoan ikus daiteke I+Gko gastuak Gipuzkoako BPGarekiko izan duen bilakaera, herrialde eskandinaviarrek eta Europako batezbestekoarekin alderatuta:

Grafikoa. I+Gko gastuaren bilakaera BPGarekiko.




Iturria: Eustat eta Eurostat

Aurreko grafikoan ikus daitekeenez, 2015ean, Gipuzkoa gertu zegoen Europako batezbestekotik, eta aldendurik Europako iparraldeko herrialdeetatik, zeinak erreferentzia argia baitira eremu horretan. Azken 7 urteetan, halere, Gipuzkoa nabarmen aldendu da Europako batezbestekotik, eta gerturatu egin da Europa iparraldeko herrialdeetara. Danimarkak edo Finlandiak, esaterako, ez dute ia hobetu adierazle hori, eta Gipuzkoak, berriz, hazkunde nabarmena izan du.

Egungo egoera ekonomikoan, ekonomiaren konplexutasuna eta erronkak islatzen dituzten alderdi ugari ikusten dira, bai maila globalean, bai Gipuzkoan bertan. Hona hemen egungo egoera ekonomikoaren zenbait puntu garrantzitsu:

Pandemia ondoko susperraldia. COVID-19aren pandemiak eragindako krisiaren ondotik, egokiro suspertu dira ekonomia globala eta, bereziki, Gipuzkoakoa, eta hobetu egin dira pandemiaren aurreko adierazleak. Hala ere, azken bi urteetako joerak erakusten du enpresek beherakada orokorra izan dutela salmentetan eta esportazioetan.

Grafikoa. Gipuzkoako enpresetako salmenten aldakuntza.



Iturria: Gipuzkoako Foru Aldundia

Oharra: Gipuzkoako enpresetako salmenten hazkundea % 77,7koa izan da 2013-2023 aldian (barneko salmentak % 81,7, eta esportazioak, berriz, % 71,3).


Lan merkatuaren erronkak. Susperraldi ekonomikoa gorabehera, lan merkatuak erronka mamitsuak ditu oraindik ere aurrez aurre. Gipuzkoan, bereziki, langabeziak nabarmen egin du behera, eta egoera asko hobetu da 2013ko ekitaldiarekin alderatuta. Ildo horretan, ponentzian egiaztatu da pertsona gehiago erakarri behar direla egun lan merkatuak dituen beharrak asetzeko.

Gaur egun, erronka bat da sektore guztietako soldatak duinak izatea eta inflazioaren arabera egokitzea, herritarren erosteko ahalmenaren murrizketa prebenitzeko. Horretarako, funtsezko oinarria da jarduera ekonomikoari eusten jarraitzea, kalitatezko enpleguak sortzen jarrai dezan.

Halaber, Europako proiektu aitzindari batzuk Gipuzkoan garatzen ari direnez, atzerrian bizi diren profesional gipuzkoarrak hasiak dira itzultzen, eta, horretaz gainera, Gipuzkoak erakartzen du nazioarteko talentua, zeina profesionalki garatzera iristen baita gurera. Aurrekoa gorabehera, garbi dago profesionalak behar direla zenbait arlotan.


Inflazioa eta moneta politika. Inflazioak gora egin du hainbat herrialdetan, baita Espainian ere, eta horrek kezka sortu du kontsumitzaileen erosteko ahalmenean eta egonkortasun ekonomikoan duen inpaktuari dagokionez. Zalantzarik gabe, zailtasun handiagoa ekarri die familiei, baita Gipuzkoakoei ere, ikusten baitute eguneroko produktuak izugarri garestitu direla azken urteotan. Bereiziki errenta ertain eta baxuetan duen eragina.

Grafikoa. Europako Banku Zentralaren interes tasaren bilakaera eurogunean.



Iturria: Europako Banku Zentrala

Grafikoa. KPIaren aldakuntza Gipuzkoan.



Iturria: Eustat

Eraldaketa digitala eta teknologikoa. Pandemiak bizkortu egin du teknologia digitalen ezarpena bizitza ekonomiko eta sozialaren alderdi ugartan. Enpresek eraldaketa digitalean inbertitu dute —eta inbertitzen jarraitzen dute— lan eta kontsumo eredu berrietara egokitzeko, eta horrek berrikuntza eta lehiakortasuna bultzatzen ditu askotariko sektoreetan. Era berean, gure inguruko herrialde guztiak TicketBAIren antzeko neurriak ezartzen ari dira. Horri esker, alde

batetik, balio erantsi eta lehiakor handiagoko zerbitzua eskaintzen da —herritarrentzat, oro har, eta jarduera ekonomikoetarako, bereziki—, eta, bestetik, murriztu egiten dira iruzur fiskal potentzialak izan ditzaketen espazioak. Era berean, gure ekonomiak behar dituen politika berriak planteatzeko orduan kalitatezko datuak izateko tresnak ematen dituzte.

Jasangarritasuna eta trantsizio energetikoa. Klima aldaketarekiko eta ingurumen jasangarritasunarekiko kezkak gero eta eragin handiagoa du ekonomia eta enpresa erabakietan. Gero eta interes handiagoa ikusten da energia berriztagarriko iturrietarantz eta enpresa-praktika jasangarriagoetarantz igarotzeko, bereziki ekonomia zirkularrari eta hondakinen eta emisio kutsatzaileen murrizketari lotuta, tokiko mailan zein maila globalean.

Erronka fiskal eta politikoak. Finantza publikoen kudeaketak eta politika ekonomikoen formulazioak erronka garrantzitsuak ditu aurrez aurre, bai estatuan, bai Gipuzkoan. Egungo ziurgabetasun-egoeraren ondorio ekonomikoei aurre egiteko beharrak, eta are beste erronka estruktural batzuek —hala nola biztanleria zahartzeak, erronka demografikoak, desberdintasun ekonomikoak eta pobrezia- eta gizarte-bazterketaren igoerak— ikuspegi politiko itundua eta neurri egokiak eskatzen dituzte, bai esparru fiskaletik, bai beste edozein esparrutatik.

Harmonizazioari buruz.

Euskal Herriko erakunde antolaketa nahiko konplexua da, arrazoi historikoak joan baitira metatzen garapen luze baten harian.

Lurralde Historikoetako Batzar Nagusiak arduratzen dira zerga sistema arautzeaz, eta haiek osatzen dute zerbitzu eta prestazio publikoak finantzatzeko behar adina baliabide lortzea ahalbidetuko duen fiskalitatea. Foru aldundiek dute tributu arauak aplikatzeko eta diru bilketarako eskumena.

Bestalde, Eusko Jaurlaritzak hiru lurralde historikoetan du eskumena, eta hura arduratzen da osasun eta hezkuntza zerbitzuak emateaz; era berean, Eusko Jaurlaritzaren eskumenean pean daude, besteak beste, gizarteratzea, herritarren segurtasuna, etxebizitza, sustapen ekonomikoa, eta abar.

Eusko Legebiltzarrean urtero eztabaidatzen eta onesten dira Euskal Autonomia Erkidegoko aurrekontu orokorrak, baina Legebiltzarrak ez du eskumenik baliabide publiko erabilgarrien tamaina zehazteko, lurralde historikoei baitagokie ahalmen hori.

Beraz, garrantzitsua da Euskadiko Zerga Koordinaziorako Organoaren lana nabarmentzea. Organo hori Zergapideen Elkaregokitasun, Erakidetasun eta Lankidetasuneko maiatzaren 30eko 3/1989 Legearen bidez sortu zen. Organo horretan, Eusko Jaurlaritzako eta hiru lurralde historikoetako foru aldundietako ordezkariak parte hartzen dute, eta zerga xedapenen proiektu guztiei buruzko txostena egiten dute. Ildo horretan, ponentziaren txostena Euskadiko Zerga Koordinaziorako Organoan partekatu behar da, batez ere kontuan hartuta haren eginkizun nagusia dela zerga erakunde eskudunen arteko harmonizazioa, koordinazioa eta lankidetzaren bultzatzea.

Ponentzian zehar, hizlari askok egin dute harmonizazioaren alde, uste baitute sinpletasunaren, segurtasun juridikoaren eta herrialde-ikuspegiaren sinonimoa dela, eta nabarmendu dute euskal ogasunek biltzen dituzten zerga itunduek kutxa bakarra sortzen dutela, eta kutxa hori gero euskal administrazioen artean banatzen dela.

Gipuzkoako zerga erreformaren edukia baldintzatzen duen eta Batzar Nagusiek alde batera utzi ezin duten beste alderdi bat da Gipuzkoa zerga ingurune konplexu batean dagoela murgilduta; izan ere, zerga administrazio bat baino gehiago baitaude oso kilometro gutxira. Alabaina, ez dira berdinak lurralde bakoitzaren egitura ekonomikoaren izaera eta errealitatea, eta, horrenbestez, beharrezkoa da zerga administrazio eskudunen arteko koordinazioa. Dena den, horrek ez du galarazten ñabardurak, berezitasunak edo, kasu jakin batzuetan, lurralde historiko bakoitzaren izaerara eta idiosinkrasiara hobeto egokitzen diren neurri propioak egokitzeko aukera.

Erreforma fiskalaren arrazoiei eta helburuei buruz.

Gipuzkoan edo beste edozein eskualdetan erreforma fiskala bati ekiteko beharra hainbat faktorek eragiten dute, zeinak konbinaturik ageri baitira, hala nola ekitateak eta justiziak, garapen ekonomikoak, eta epe luzerako finantza egonkortasuna sustatzeko premiak.

Garrantzitsua da kontuan hartzea erreforma fiskal hau kontu handiz diseinatu behar dela izaera justua, progresiboa, ekitatiboa eta solidarioa lortzeko, lehiakortasuna eta epe luzerako finantza-jasangarritasuna kontuan hartuta. Horretaz gainera, funtsezkoa da erreforma diseinatzeko eta ezartzeko prozesuan askotariko eragileak inplikatzeko, tartean zerga adituak, ordezkari politikoak eta gizarte zibila. Hain zuzen ere, horretarako egin da ponentzia hau Gipuzkoako Batzar Nagusietan.

Izan ere, zerga sistemaren berrikuspen orok abiapuntu izan behar du bete beharreko helburuei buruzko adostasun orokorra, eta adostasun hori, aldi berean, ezin da bereizi txosten honetako aurreko puntuetan aztertutako inguruabar orokorretatik.

Gipuzkoak bizi duen egoera kontuan hartuta, beharrezkoa da zerga sistema bi helburu orokorrekin aztertzea. Hori horrela, lehen helburu orokorra da izaera justua, progresiboa, ekitatiboa eta solidarioa bermatzea, zerbitzu publikoak indartzeko, hori baita bidea pertsonei arreta hobe emateko, aberastasuna birbanatzeko, kalitatezko enplegua sortzeko eta gizarte-desberdintasun guztiak ezabatzeko beharrezkoak diren baldintzak sortzeko.

Botere publikoek zerga esparru egokia ezartzeko ardura dute, batez ere lurraldean garatzen den jarduera ekonomikoak gizartearen beharrei erantzuteko behar adina baliabide publiko sor ditzan —premia horiek izan daitezke sozialak, hezkuntzari lotuak, sanitarioak, etxebizitzakoak, ingurumenekoak, edo are ekonomia, azpiegiturak, nekazaritza, arrantza eta abar modernizatzearekin loturikoak—. Baliabide horiek berdintasun, progresibotasun, ekitate eta elkartasun printzipioetan oinarritutako zerga sistema justu baten bidez lortu behar dira. Ildo horretan, herritar guztiek, baita gure lurraldeko enpresa-sareak ere, gastu publikoei eusten laguntzeko betebeharrak solidarioak dute, nork bere ahalmen ekonomikoaren arabera.

Bestalde, bigarren helburu orokorra da zerga sistemaren ekitatea eta progresibitatea azpimarratzen jarraitzea, eta, eginkizun horretan, tributu sarrera berriaren ahalik eta perimetro handiena irekitzea; hau da, oinarria zabaltzea eta, horrekin batera, zergak saihesteko bideak ezabatzea. Gastuaren aldetik, lurraldeko epe luzerako helburuak lortzeko beharrezko neurriak hartzen jarraitu nahi da, gastu fiskalaren efizientzia printzipio orokor gisa hartuta. Hori guztia, jakina, gure eskumenen esparruan, batez ere zuzeneko zergetan.

Birbanaketa da zerga sistemaren berezko funtzioetako bat. Ildo horretan, zerga sistema —haren progresibitatea kontuan izanik— oso tresna baliagarria da gehien irabazten dutenen eta ondare handia dutenen tributu sarrerak birbanatzeko eta errenta txikiak dituzten biztanleen beharrak asetzea bideratzeko, dela azken horiei tributu karga txikiagoa ezarrita, dela ezarpen negatiboaren bidez (itzulgarria), dela laguntzen eta dirulaguntzen sistema sendo baten bidez, dela izaera unibertsaleko politika publiko batzuen bidez, dela guztiek bat egitearen bidez.

Azkenik, ezin da ahaztu zerga sistema orok zerga bilketan duen funtzioa. Horregatik, zergak ordainarazteko moduak, esate baterako, eragile ekonomikoak erabaki jakin batzuk hartzea bultzatzea, eta erabaki horiek isla izango dute agintari eskudunek sustatu nahi dituzten alderdiei zuzendutako baliabideen esleipenean.


Alabaina, eta aurrekoa alde batera utzi gabe, ezin da ahaztu enpresen lehiakortasunari eusteko eta bide horretan eragiteko beharra, kontuan izanik lehiakortasuna dela enpresen eraginari eusteko eta zabaltzen laguntzeko gaitasuna, bai barne merkatuan, bai kanpoan (gero eta premiazkoagoa da alderdi hori). Eta horrek, aldi berean, errenta eta enplegu gehiago sortzea dakar.

Ekitateari eta progresibitateari buruz.

Errenta baxuek jasaten duten tributu karga.

Errenta baxuek modu desberdinean jasaten dute tributu karga, haien soldata mailek zailtasun handiagoak eragiten baitizkiete pertsona ororen oinarritzko beharretara iristeko. Gipuzkoak GINI indize oso onak ditu berdintasunari dagokionez, eta beste lurralde batzuek baino pobrezia indize txikiagoak ageri ditu. Hori hala izanik ere, ezin dugu ahaztu biztanleriaren zati handi bat direla oraindik ere, eta beharrezkoa dela politika aktiboak egitea haien mesedetan, BEZaren aparteko eragina alde batera utzi gabe.

Grafikoa. GINI indizearen bilakaera.



Iturria:

Eustat eta Eurostat

Aldiz, Europako eskualdeekin konparatzen bada, ikusten dugu Gipuzkoa parez pare dagoela koefiziente horretan jardunbide hobea erakusten dutenetatik. Edozein kasutan, eremu horretan oraindik bidea egiteko dago.

Aurrekoa gorabehera, gizarte kohesioa Gipuzkoako gizartearen nortasun ezaugarri bat da, eta ildo horretan jarraitu behar da aurrera egiten, lurralde oparoa eta kohesionatua lortzeko; izan ere, ekitateak eta berdintasunak bizikidetzaren funtsezko zutabe iraunkor izaten jarraitu behar dute. Nabarmentzekoa da, tamalez, eta Eusko Jaurlaritzaren datuen arabera, pobrezia % 4,5etik % 5,1era igo dela Gipuzkoan, eta goranzko joerari eusten diola. Are gehiago, pobrezia arriskuan dauden herritarrek % 16,4 dira gaur egun, Europako herrialde aurreratuenen datuen gainetik; Danimarkan, %12,7, eta Finlandian, %12,0, Eurostaten datuen arabera.

Eginahal horretan, beharrezkoa da, batetik, balio erantsi handiko jarduera ekonomikoa epe luzera bultzatzeko neurriak hartzea —lan merkatu indartsua eta lehiakorra lortzeko, kalitatezko enpleguekin, produktibitate handikoa, zerbitzuen kalitate-estandar handiekin eta soldata handiagoekin—, eta, bestetik, tributuen tarifa sistema errenta txikienetara egokitzea. Horrek zenbait ondorio izan ditzake:

Progresibitate fiskala: Alde batetik, balio erantsi handiko enpleguak lortzea, soldata egokiekin, eta, bestetik, progresibitate fiskala aplikatzea zergei, errenta altu, ertain eta baxuek zerga-kargaren banaketa bidezkoagoa lortzen lagun dezaten. Hori lagungarria izan daiteke ezberdintasun ekonomikoa murrizteko eta justizia fiskala hobetzeko.

Pizgarri ekonomikoa. Bai diru sarrera apalak dituzten pertsonen (diru sarreraren proportzio handiagoa bideratzen dutenak oinarritzko ondasun eta zerbitzuetara), bai balio erantsi handiko

lanak egiteagatik soldatak igotzen dituztenek nabarituko dute eskura dituzten diru sarreren igoera, eta, egoitza fiskala Gipuzkoan duten pertsonak izaki, tokiko ekonomian gastatuko dute gehienbat. Horrek eragin biderkatzailea izan dezake jarduera ekonomikoan, eta ekonomia lokalaren sarea suspertu.

Pobrezia murriztea. Jarduera ekonomikoa finkatzeak, azken hamarkadan gertatu den bezala, lagundu egin du pobrezia mailak murrizten eta lurraldeko desberdintasunak hobetzen. Herritarrak lan merkatuan sartzeak eragin zuzena du pobrezia murrizten eta gizarte osoaren ongizate ekonomikoa hobetzen. Ez dira ahaztu behar hainbat arrazoi direla medio aldi baterako edo betiko lan merkatutik kanpo geratzen diren herritar guztiak, administrazio publikoen aberastasuna birbanatzeko mekanismoen eraginkortasunaren mende daudenak, dela prestazio gisa, dela tributazio negatibo gisa (itzulgarria).

Azkenik, kontuan hartu behar da azken urteotan soldata igoerak gertatu direla, eta horrek hainbat neurri hartzera eraman dituela Foru Aldundia eta Gipuzkoako Batzar Nagusiak, hala nola tarifaren deflaktazioa eta 200 €-ko kenkaria, zeinaren onuradun nagusiak 35.000 eurotik beherako errentak izan baitira, kuota fiskalarekin, bai eta aitortzeko betebeharrean egin diren egokitzapenak ere. Dena den, beharrezkoa da aitorten atalaseak Gipuzkoako egungo egoerara egokitzea, kontuan hartuta gaur egun 2024rako lanbidearteko gutxieneko soldata (LGS) 15.876 eurokoa dela urtean, 1.134 euroko 14 ordainsaritan banatuta (% 54ko igoera 2018tik), Gipuzkoako Lurralde Historikoko zerga-egituraren filosofiara eta idiosinkrasiara egokituz.

Errenta ertainek jasaten duten tributu karga.

Gipuzkoako batez besteko errentei dagokienez, adierazi behar da errenta horiek osatzen dutela lurraldeko biztanleriaren ehuneko handiena. Haien barruan, multzo handi bat ageri da, maila sozioekonomiko ertaina duten Gipuzkoako herritarrez osatua, guztiak ere bizimodu duina izateko gai: eskura dituzte oinarritzko ondasun eta zerbitzuak, hala nola etxebizitza propioa, elikadura eta hezkuntza, eta abar. Alabaina, ahalegin ekonomiko handiak egin behar izaten dituzte batzuetan horiek guztiak eskuratu ahal izateko.

Hori dela eta, Gipuzkoako zerga sistemak oso kontuan izan behar du zergadunen kolektibo hori; izan ere, haien errenta maila dela eta, denek ezin dituzte baliatu erosketa saskiaren, erregaiaren, elektrizitatearen, gasaren edo etxebizitzaren prezioa nabarmen igotzearen ondorio larriei aurre egiteko laguntzak eskaintzeko politika publikoak, eta ezin dituzte baliatu, era berean, banku nagusiek interes tasak handitu izanaren ondorio larriei aurre egiteko neurriak ere. Alabaina, herritar multzo horrek lehen pertsonan bizi dituzte igoera horiek guztiak etxean.

Errenta handiek jasaten duten zerga karga.

Gaur egun, diru sarrera handienak dituzten gipuzkoarrek % 49ko tasa marjinala dute pertsona fisikoen errentaren gaineko zergan (PFEZ). Estatuan, Nafarroak bakarrik gaitzen du (% 52) eta Europan, berriz, Frantziak (% 55,4), Suediak (% 52,3), Danimarkak (% 52,07) eta Finlandiak (% 51,4). Nabarmendu behar da Gipuzkoan, PFEZarekin batera, badirela aberastasuna zergapetzen duten bi zerga osagarri. Batetik, ondarearen gaineko zerga, eta, bestetik, fortuna handien gaineko aldi baterakoa, eta ondare garbiaren urteko % 3,5 ere tributatu behar izaten dute. Ondarearen gaineko zerga hori azken bi legealdietan diseinatu da, eta zergadunen

oinarria handitzea lortu du; hala, areagotu egin da zerga bilketa. Berezitasun hori ez da existitzen ELGAko herrialde gehienetan, eta ondare handiena dutenek sistemari ekarpen handiagoa egiteko estrategiari erantzuten dio.

Ezin da alde batera utzi Gipuzkoako biztanleriaren ehuneko txiki horri ez diela neurri berean eragin COVID-19aren pandemiak, Ukrainako Gerrak edo inflazioaren igoerak, eta klase apalek edo ertainek ondorio latzagoak izan dituztela. Egoera horren aurrean, gobernu batek neurri solidarioak hartu behar ditu, eta ahalegin fiskal handiagoa eskatu ahalmen ekonomiko handiagoa dutenei.

Horregatik, Gipuzkoako zerga sistemak koherentea izaten jarrai dezan eta progresibitatearen helburu konstituzionala bete dezan, errenta altuenek tributu karga handiagoa izan behar dute baxuek eta ertainek baino, eta, hala, lagundu egin behar du herritar guztientzako zerga sistema justu, bidezko eta solidario bat lortzen.

Etengabeko ebaluazioari eta gardentasunari buruz.

Politika publiko oro sistematikoki ebaluatu behar da, helburuak beteko dituela bermatzeko; administrazio publikoan hobekuntza etengabea eman behar da, eta, horretarako, funtsezkoa da aldian-aldian hori bermatuko duten mekanismoak jartzea. Ildo horretan, neurrien eraginak ebaluatu behar dira, bai eta generoari dagokionez duten joera eta zerga-saihestea ere, besteak beste.

Gardentasunak fiskalitatea ere hartu behar du bere baitan, eta modu homologatuan egin behar du Araba, Bizkai eta Gipuzkoa artean. Publikoak izan behar dute, besteak beste, tributu bakoitzaren presio fiskal nominal eta efektiboak, baita gastu fiskalak, biztanleko ikuskatzaile kopuruak.

Azkenik, garrantzitsua da Ticket Bai sistemaren bidez lortutako informazioarekin behatoki bat martxan jartzea, kalitatezko datuekin politika publikoak hobetzen laguntzeko.

Gipuzkoak aurrez aurre dituen erronka nagusiei buruz.

Gipuzkoak, lurralde gisa, irmo heldu behar die etorkizunari aurre egiteko sortzen ari diren erronkei eta beharrezko eraldaketei. Mundua ziurgabetasun inguruabarretan murgilduta dago, eta, aldaketa sakonen garaian, erakundeek lagundu egin behar diote lurraldeko biztanleriari eta ehun ekonomikoari eraldaketa horietan. Horrek guztiak paradigma berri bat definitzen du, eta, Gipuzkoari eragiten dion neurrian eta moduan, beharrezkoa da erronka batzuei heltzea. Erronka horietako batzuk, gainera, beste lurralde batzuekin ere partekatzen dira. Hauek azpimarra ditzakegu:

Gizarte kohesioa. Aukera berdintasuna sustatzea, gizarte bazterkeriari aurre egitea eta zerbitzu publikoetarako sarbide zuzena bermatzea erronka garrantzitsuak dira Gipuzkoan gizarte kohesioa indartzeko.

Erronka demografikoa. Europako eskualde askotan bezalaxe, Gipuzkoak heldu egin behar dio biztanleria zahartzearen eta jaiotza tasaren krisiak ekarritako erronkari; horrek izan dezake ondoriorik gizarte zerbitzuei, osasuna zaintzeari, belaunaldien arteko erreleboari eta talentuaren eta eskulanaren (eskulana oro har, eta, bereziki, eskulan kualifikatua) eskaerari dagokionez, zainketen sistema publikoari eusteko gero eta premia handiagoari aurre egiteko.

Berdintasuna. EUSTATen datuen arabera, 2023an Gipuzkoako biztanleen % 51,19 emakumeak ziren, eta errenta-tarte txikienetan kontzentratzen ziren. Gainera, hori beste diskriminazio-faktore batzuei gehitzen zaie (diskriminazio anizkoitza). Gure lurraldeak urrats ausartak egiten jarraitu behar du, gure lurraldean emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna benetakoa izan dadin.

Emantzipazioa. Gipuzkoak heldu egin behar dio etxebizitzarako eskubide subjektiboa bermatzeko erronkari —legez aitortua—, eta arreta berezia jarri behar dio eskubide hori errentamenduaren bidez eskuratzeari, bereziki egoera kalteberan dauden kolektiboak eta gazteei zuzenduta.

Azpiarratzekoa da Europako gazteen emantzipazio-tasa baxuenetakoa dugula: Euskadiko 18 eta 34 urte bitarteko gazteen % 14,8 bizi dira etxetik kanpo, Europako batz bestekotik behera (%31,9) eta Europako herrialde aurreratuenetatik behera, hala nola, Suedian % 76,7, Finlandian % 65, Danimarkan % 71,4, Alemanian % 51,2.

Langabezia. Ekonomia dinamikoa izan arren, eta nahiz eta gure lurraldeak langabezia zifra txikiak izan Europako batezbestekoarekin alderatuta, egia da, halaber, langabeziak erronka izaten jarraitzen duela Gipuzkoan, bereziki gazteen eta iraupen luzeko langabeen artean.

Garapen ekonomiko jasangarria. Gipuzkoak orekatu egin nahi du garapen ekonomikoa, eta bateragarri egin nahi du ingurumena babestearekin eta biztanleen bizi kalitatea zaintzearekin. Gizarte aberastasuna sortuko duen ekonomia indartsu eta lehiakorra finkatzera bideratutako fiskalitate berria bultzatzea, kalitatezko enplegua sortzen duen enpresa sare arin batekin, langileen partaidetzan, berrikuntzan eta nazioartekotzean oinarrituta, eta baita ekitate sozial eta arduratsuan ere.

Trantsizio energetikoa. Ziurtatu egin behar da Gipuzkoako gizartearen eta ekonomiaren trantsizio energetikoa, 2050ean klima neutritasuna lortzeko bidean eta Europako Itun Berdearekin bat etorriz, zeina pertsona guztientzat bidezkoa izango den, betiere oinarri gisa harturik energia berriztagarrien sustapena, ekonomiaren zirkulartasuna eta aurrerapauso nabariak mugikortasun jasangarriago eta konektatuagoan.

Berrikuntza eta lehiakortasuna. Berrikuntza eta lehiakortasun zentro gisa duen posizioari eusteko, Gipuzkoak ikerketan, garapenean eta berrikuntzan inbertitzen jarraitu behar du, bai eta prestakuntzan ere, kualifikazio handiko langileak izateko.

Erronka konplexuak dira horiek, eta eragile ugari inplikaturik dituen ikuspegi integrala behar dute; hori horrela, orpo orpo eta elkarlanean jardun behar dute, besteak beste, foru

erakundeek, Eusko Jaurlaritzak, udalek, sektore pribatuak, gizarte zibilak, unibertsitate publikoak eta hirugarren sektoreak.

Kultura. Kultura arlo estrategikoa da gizarte ororentzat, eta Batzar Nagusi hauen ardura izan behar luke alor horretan ari diren eragile eta norbanakoen bidea babestea. Kultur-sistemaren barruan, euskarak eta euskaraz sortutako kulturak oztopo eta zailtasun ugari egin behar diete aurre iraungo badute, eta Gipuzkoan, lurraldeko egoera soziolinguistikoa kontuan hartuta, badagokigu euskal kultura ahalik eta gehien laguntzea, baita zerga alorrean ere.

1. erronka. Etxebizitza eskuratzea.

Gipuzkoa lehen postuan dago probintziarik garestien sailkapenean, bai salerosketei dagokionez, bai alokairuari dagokionez, metro koadroko 3.429 euroko batezbesteko orokorrarekin —iaz egindako salerosketa guztiak kontuan hartuta—. Era berean, Gipuzkoan garestitu dira gehien alokairuak (% 6,6). Horregatik, ahaleginak egin behar dira gipuzkoarrek etxebizitza duin bat eskuratu ahal izango dutela bermatzeko, kolektibo kalteberak eta gazteak bereziki azpimarratuz.

Euskal Autonomia Erkidegoko erakundeek urteak daramatzate etxebizitza duina arrazoizko prezioan lortzea sustatzeko eta bermatzeko politikak garatzen, baina gaur egun ezin zaio erantzun eskari guztiari. Epe ertain eta luzera, alokairuko etxebizitza publikoen eraikuntza bultzatu behar da, harik eta eskaerari erantzun ahal izateko moduko parke zabala lortu arte. Eta, epe laburrean, Alokabideren Bizigune eta Asap programak indartu behar dira, hutsik dauden etxebizitzak azaleratzeko. Horretarako, funtsezko elementua da eskumena duen administrazio publikoarekin lankidetzan jardutea, politika publikoak gastuarekin zein fiskalitatearekin lerrokatzeko.

Aurrekoaz gainera, beharrezkoa da zahartutako etxebizitza parkea ohiko bizitokirako birgaitzen jarraitzea, bai eta haien energia efizientzia sustatzen jarraitzea ere.

Une honetan, etxebizitza falta arazo nabarmena da, eta horri erantzuna eman behar zaio. Horregatik, modu koordinatuan jardun behar dute erakunde batzuek eta besteek: helburuak lerrokatu behar dituzte eta garatu beharreko jardueren naiz erabili beharreko baliabideen efizientzia maximizatu. Hori guztia, gipuzkoarrek prezio arrazoizkoagoan izan dezaten etxebizitza duina. Honela laburbildu daitezke arazo nagusiak.

Etxebizitza prezio arrazoizkoan eskuratzea. Gipuzkoan erronka handienetako bat da herritar guztiek prezio arrazoizkoan lortzea etxebizitza, batez ere alokairuan. Gipuzkoako zenbait eremutako higiezin merkatuak nabarmen egin du gora etxebizitzaren prezioetan, eta horrek zaildu egiten die pertsona eta familia askori etxebizitza eskuratzea, ez baldin badute laguntza edo pizgarri fiskalik, edo egungo arazoa arintzeko ezarritako araudia betetzea bultzatzen ez bada.

Eskaintzarik eza. Prezioen gorakada hori, zalantzarik gabe, edozein motatako etxebizitzaren (alokairukoak zein erosketakoak) nahiz eskaintza pribatu edo publikoaren eskasia dela eta gertatu da. Gipuzkoako Lurralde Historikoak orografia oso berezia du, eta horrek galarazi egiten

du etorkizunean etxebizitza bloke handiak eraikitzea. Hori dela eta, uste da etxebizitza parkea ez dela asko haziko, eta hori da, zalantzarik gabe, lurraldearen arazo nagusia.

Etxebizitza hutsak. Epe laburrean, lurraldearen erronketako bat da neurri egokiak aztertzea eta abian jartzea hutsik dauden etxebizitzak higiezin merkatuan sar daitezen, ohiko etxebizitza gisa alokatzeko. Erakundeen arteko lankidetzak funtsezko elementua da helburu hori lortzeko.

Etxebizitza soziala. Tokiko eta eskualdeko agintariek etxebizitza publikoen eskaintza handitzeko ahaleginak egin dituzten arren (ez da ahaztu behar estatuan eraikitzen diren hiru etxebizitza publikotik bat Euskadin altxatzen dela), eskariak handiago izaten jarraitzen du eskaintzak baino, eta horrek ez ditu hobetu, orobat, etxebizitza sozial bat eskuratzeko zailtasunak.

Hiri berroneratzea eta etxebizitzak birgaitzea, ohiko erabilerarako. Gipuzkoan etxebizitza zaharren parke handia dago, eta beharrezkoa da horiek birgaitzea eta berritzea. Hiri berroneratzea eta etxebizitzak ohiko erabilerarako birgaitzea funtsezko eginkizunak dira guztien bizi kalitatea hobetzeko eta hiri eremu degradatuak biziberritzeko, bai eta alokairuaren merkatuan sartzea errazteko ere.

Garapen jasangarria eta energia efizientzia. Etxebizitzaren sektorean garapen jasangarria sustatzea eta efizientzia energetikoa hobetzea da Gipuzkoaren beste erronka garrantzitsu bat. Jarduera horien kostuak biztanleriaren zati handi baten ahalmen ekonomikoa gainditzen duela ulertuta, trantsizio hori ahalbidetzeko beharrezko neurriak abian jarriko dira. Era berean, beharrezkoa da energetikoki efizienteagoak diren etxebizitzak birgaikuntza eta eraikuntza sustatzea eta energia berriztagarrien erabilera bultzatzea, etxebizitzaren sektorearen ingurumen inpaktua murrizteko.

Erronka demografikoak. Gipuzkoak erronka demografikoak ere baditu aurrez aurre, hala nola biztanleria zahartzea eta eremu batzuetan gazteak murriztea. Horrek izan dezake inpakturik etxebizitza eskarian eta epe luzearako hiri plangintzan.

Erronka horiei guztiei aurre egiteko, ahalegin fiskala egin beharko da, eta, horretaz gainera, beharrezkoa izango da sektore publikoaren, sektore pribatuaren eta gizarte zibilaren arteko lankidetzak, hala lortuko baita lurraldeko etxebizitzaren egoera hobetuko duten politikak eta neurri eraginkor eta integralak garatzea.

Zalantzarik gabe, Gipuzkoako etorkizuneko zerga politikak bat etorri behar du maila desberdinetan dauden funtsezko araudiekin, Euskadiko Etxebizitzaren aldeko 2022-2036 aldirako Itun Sozialarekin, bai eta Eusko Jaurlaritzaren Etxebizitza Plan Zuzentzailearekin ere. Plan horretan, hain justu, planteatzen da beharrezkoa dela zerga politika hori birbideratzea eta etxebizitza politikaren helburuekin lerrokatzea. Politika horrek etxebizitza duin bat eskuratzeko erraztearen aldeko apustua egiten du, batez ere alokairuaren bidez, eta ez erosketaren bidez, arreta berezia jarritzaz gazteengan eta kalteberatasun egoeran daudenengan; era berean, bereziki erreparatzen die birgaitze inbertsioei eta bizitegi eraikinen parkearen gaineko jarduketari, irisgarritasuna eta energia efizientzia hobetzeko.

2. erronka. Erronka demografikoa.

Erronka demografikoa kezka erabakigarria eta etengabea da, eta halaxe adierazi izan da askotan ponentzian zehar. Erronkak ez dio Gipuzkoari soilik eragiten, Euskadi osoari baizik. Hauek dira erronka horren funtsezko alderdietako batzuk:

Biztanleria zahartzea. Beste eskualde askotan bezala, Gipuzkoan ere zahartzen ari da biztanleria. Hori hainbat faktorek eragin dute, hala nola jaiotza tasaren jaitsierak, bizi itxaropenaren igoerak eta gazteak lan aukeren bila beste eskualde batzuetara migratzeak.

Gazteen kopurua murriztea. Emantzipatu ahal izateko etxebizitza duinik ez izateak, eta gazteen mugikortasun handiak, erronka berriak eta perspektiba hobeak bilatzen baitituzte, zenbait gaztek lurraldea uztea eragiten dute. Biztanleria gaztearen gutxitze horrek hainbat erronka dakartza, hala nola zerbitzu publikoak mantentzeko dagokionez, biztanleria aktiboa zahartzeko dagokionez, hiriguneak biziberritzeko dagokionez eta ekonomia dinamizatzeak dagokionez.

Inpaktua ekonomian eta lan merkatuan. Biztanleria zahartzeak eta gazte kopuruak behera egiteak inpaktu nabarmena izan dezakete Gipuzkoako ekonomian eta lan merkatuan. Esate baterako, eskulan gutxi izatea sektore jakin batzuetan, eta arreta medikoko eta adinekoen zaintzako zerbitzuen eskaria handitzea.

Pentsio sisteman izango duen inpaktua. Egoera horrek guztiak eragin handia izango du pentsioen kalkuluan; izan ere, piramide demografikoa alderantzizatzaren ondorioz, biztanleria aktibo gutxiago izango da pentsiodun kopuru handi batek behar duen pentsio sistemari eusteko. Zalantzarik gabe, indartu egin beharko da pentsio sistema.

Hiri plangintzaren eta azpiegituraren erronkak. Aldaketa demografikoak erronkak planteatzen ditu Gipuzkoako hiri plangintzari eta azpiegitura garapenari dagokienez. Adibidez, beharrezkoa da ohiko etxebizitzak eta zerbitzu publikoak egokitzea zahartutako biztanleriaren beharrei erantzuteko, eta irisgarritasuna, mugikortasuna eta inklusioa sustatu behar dira hiri inguruneetan.

Talentua erakartzeko politiken beharra. Erronka demografikoari aurre egiteko, funtsezkoa da Gipuzkoan talentua erakartzeko eta leialtzeko politikak ezartzea. Horren barruan sar daitezke zenbait sustapen neurri: enplegua bultzatzekoak, etxebizitza arazoizko prezioan eskuratzekoak, lana eta familia bateragarri egitekoak eta prestakuntzarako eta garapen profesionalerako aukerak sustatzera bideratuak.

Arazo horiek ikusita, hausnarketa sakona egin beharko litzateke EAEko erakundeen barruan, aztertzeke ea gastu politiken eskutik etorri behar den soluzioa —hala nola errentaren eta seme-alaben kopuruaren arabera laguntza ekonomiko progresiboak, baliabide periferiko handiagoak (doako haurtzaindegia publiko nahikoak 0-3 urte bitartekoentzat, esaterako), ordutegien malgutasun handiagoa edo bestelako neurriak— edo, aldiz, politika fiskaletik etorri behar diren. Edo bien konbinaziotik, horietako bakoitzaren eraginkortasuna maximizatuz. Era berean, ez da ahaztu behar administrazioak azkar eta eraginkortasunez esku hartu behar duela, eta bere jarduna hobetzeko erantzukizuna duela, gizarteari erantzun hobe emateko, prozesuak automatizatuz, arinduz eta sinplifikatuz.

Etorkizuneko erreforma fiskalak kontuan hartu beharko ditu gai horiek, politika/laguntza bakoitzaren helburu zehatzetara eta Euskadiko arkitektura instituzionalera ondoen egokitzen diren erabakiak hartu beharko ditu.

3. erroka. Zaintza eredu berria ezartzeari buruz

Gipuzkoan gaur egun dagoen ongizate estatuaren jasangarritasuna da gaur egungo beste erroketako bat. Hala, eginkizun garrantzitsua dira gizarte zerbitzuen inbertsioa, finantzaketa eta jasangarritasuna, baina eginkizun garrantzitsua da, orobat, ongizate estatua ondo egokitzea gizarte zerbitzuen sistemak finantza publikoen jasangarritasunari begira planteatzen dituen erroka errealek.

Orain arte, Euskadiko gastu publikoa finantzatzeko arau bereziek ahalbidetu dute EAEk inbertsio sozial handia egin ahal izatea biztanleriaren premia gehienak estaltzeko.

Baina, proiektio demografikoen eta gizarte zerbitzu publikoen eskakizun berrien ondorioz, galdera ez da hainbeste zerbitzu publiko jakin batzuetan zenbat inbertitu daitekeen, baizik eta zenbat inbertitu behar den zerbitzu horien bidez lortu nahi diren emaitzen arabera eta nola lor daitezkeen ahalik eta modu efizienteenean.

Eta garrantzitsua da, halaber, zenbat ordaintzeko prest dauden herritarrak, osasunaren eta zainketen arloan helburu jakin batzuk lortzeko.

Zalantzarik gabe, gizarte zerbitzuen eta, zehazki, zainketen eskaera handitzeak —datozen urteetarako aurreikusita dagoen bezala— berekin ekarriko du gizarte babesaren sektore horretara baliabide ekonomiko gehiago bideratzeko beharra, epe ertain eta luzera.

Horrekin batera, kontuan hartu behar da aurreikusten dela gizarte eta osasun zerbitzuekin lotutako kostu unitarioak igo egingo direla, eta biderkatu egingo direla sistema horiek artatutako premiak —bai biztanleriaren zahartzearen eta bizi itxaropenaren igoeraren ondorioz, bai zaintza informalaren eskuragarritasuna murriztearen ondorioz—. Gainera, litekeena da biztanleria aktiboa murriztea, nahiz eta agian biztanleria atzeritarrarekin konpentsatu.

Beraz, gizarte zerbitzuen sistemak finantza publikoen jasangarritasunari begira planteatzen dituen erroka errealek testuinguru egokian kokatu eta dimentsionatu behar dira, eta, horretarako, alderdi hauek hartu behar dira kontuan:

- 65 urtetik gorako biztanleak nabarmen ugartuko dira datozen hiru hamarkadetan, bai eta 80 urtetik gorakoak ere.
- Gipuzkoak, gainera, estatuko gainerako lurraldeek baino biztanleria zaharragoa du, eta 2030erako espero den jaiotza kopurua, berriz, 1,41ekoa da emakume bakoitzeko.
- Aurreikuspenen arabera, migratzaileen kopurua nabarmen handituko da datozen urteetan. Migrazio eta ugalkortasun joerak neurri batean aurre egingo balio ere biztanleria zahartzeari, ez dakigu nahikoa litzatekeen zahartze hori lehengoratzeko.

- Lan eskaintza nabarmen murriztea espero da sektore jakin batzuetan, eta handitzea beste batzuetan, hala nola zainketen sektorean eta osasunaren zaintzari lotutakoetan.
- Egoera geopolitiko globalak ziurgabetasun handiak eragiten ditu.
- Mendekotasunaren zainketa formalen eskariaren bilakaerarekin eta, beraz, arlo horretako inbertsioarekin gehien lotzen den elementuetako bat da zaintza informalaren eskuragarritasunari dagokionez aurreikusitako bilakaera. Hauek dira zaintza informalarekin zuzenean lotutako bi eraldaketa nagusiak: lehenik eta behin, zaintza premiak dituen adineko biztanleriaren hazkundera, eta, bigarrenik, tradizionalki zaintza informal horiek bere gain hartu izan dituen emakumezkoen biztanleriaren beherakada.
- Mendekotasunaren eragina nabarmenagoa da adin handieneko taldeetan; populazio egitura zahartzen den heinean, espero izatekoa da gora egingo duela zainketa premiak dituzten pertsonen kopuruak, eta, horrekin batera, gora egingo duela iraupen luzeko zaintzetara bideratutako baliabideen kopuruak ere.

Horrenbestez, zahartzearekin lotutako faktore guztiak ebaluatzen saiaturik, zahartzeari lotutako gizarte zerbitzuetan aurreikusten den inbertsioa, hau da, iraupen luzeko zainketetan aurreikusten dena, jarraitua, etengabea eta bolumen handikoa izango da.

Kontuan hartu behar da, era berean, mendekotasunari arreta emateko zerbitzuetan eginiko gastuak baduela inpakturik enplegua eta hazkunde ekonomikoa sortzean; horretaz gainera, jarduera horietara bideratutako gastuak badu itzulerarik, zerga eta kotizazio gisa.

Gastu edo inbertsio sozial horri aurre egiteko, beharrezkoa da herrialde akordio handi bat; izan ere, foru aldundiek eta udalek, beren kabuz, ezin izango diete erantzun beti eta edozein egoeratan gizarteak planteatzen dizkigun beharrei.


Irizten diogu eztabaida lasai eta serio bat abiarazi behar dela lortu nahi diren Gizarte Babeseko eta Gizarte Zerbitzuetako Sistemaren bideragarritasunari eta jasagarritasunari buruz — Euskadin oraindik egiteke dago hori—, eta ez da baztertu behar arlo horrek baliabide guztien gainean duen garrantzia handitzea.

4. erronka. Borondatezko Gizarte Aurreikuspeneko Erakundeak Gipuzkoan.

1995eko Toledoko Itunez geroztik, Espainiako gizarteak mekanismo bat ezarri zuen Gizarte Segurantzako sistema bat defendatzeko, ekarpenean eta elkartasunean oinarritua, adostasun politikoaren eta elkarriketa sozialaren bidez egituratua, eta prestazioen izaera eta helburuari egokitutako finantza estaldura dituen; gizarte kotizazioetan oinarritzen da, eta estatuak Gizarte Segurantzaren Aurrekontuari egindako ekarpenekin osatzen.

Egia da une honetan azken hamarkadetako afiliazio mailarik altuena duela Gipuzkoak, baina biztanleria zahartzeak pentsioen gastua handitzea eragiten du. Ildo horretan, sistema hori sostengatzen duen pertsona kopuru txikiagoa dela ikusirik (biztanleria aktiboa), pentsio sistema hainbat bidetatik indartu behar da.

Grafikoa. Gizarte Segurantzako afiliatu kopuruaren bilakaera Gipuzkoan.



Iturria: Gizarte Segurantzza

Ildo horretan, hegoaldera begiratuz gero, Gipuzkoa tradizio handiko lurraldea da enpleguaren alorreko borondatezko gizarte aurreikuspeneko erakundeetan (BGAE), eta erreferentzia da hala Euskal Autonomia Erkidegoan, nola Espainiako estatuan. Baina, iparraldera begiratuz gero, Gipuzkoa urrun dago erreferentziatzko herrialdeetatik, Holanda, Islandia, Suitza edo Danimarkatik, kasu.

Taula. BGAEetako aktiboen ehunekoa, BPGarekiko.

País	%activos EPSV similar/PIB
Euskadi	31,0%
Holanda	153,7%
Islandia	183,2%
Suiza	137,5%
Dinamarca	191,1%
España	11,8%

Iturria: Eustat eta Eurostat

Tradizio hori duela hamarkada batzuk hasi zen, eta sustrai sakonak ditu Gipuzkoako kulturen eta historian. Enpleguko BGAEak (Geroa, Lagun Aro, Elkarkidetza) lurraldeko gizarte aurreikuspeneko sistemaren zati integrala dira, eta langileek eta enpresek asko erabili dituzte erretiroa planifikatzeko eta gizarte aurreikuspeneko beste premia batzuk betetzeko.

Jarraian zehazten ditugu Gipuzkoako BGAEen tradizioaren ezaugarri batzuk:

Pentsio publikoen osagarria. Enpleguko BGAE-ek erretirorako aurrezpen modu gehigarri bat eskaintzen dute. Horrek aukera ematen die langileei eta enpresei pentsio publikoak osatzeko

eta erretiro garaian diru sarrerak hobetzeko. Horregatik, sustatu behar da errenta gisa erreskatatzea, eta ez kapital gisa.

Langileen parte hartze aktiboa. Borondatezko gizarte aurreikuspeneko erakundeak (BGAE) langileek beren baliabideen kudeaketan eta etorkizun finantzarioaren plangintzan aktiboki parte hartzeko tresnatzat hartzen dira. Hori hitzarmen kolektibo ugaritan islatu da, eta langileek BGAEei egin beharreko ekarpenei buruzko klausulak sartu dira. Gainera, enpresetan talentua erakartzeko eta fidelizatzeko modu eraginkorra izan daiteke enpleguko BGAEak eskaintzea. Plan horiek onura gehigarri gisa har ditzakete langileek, eta lagungarriak izan daitezke enpresarekiko konpromisoa areagotzeko.

Enpresaburuen parte hartze aktiboa. Era berean, enpresek gizarte aurreikuspenean eta dituzten langileen etorkizunean aktiboki parte hartzea dakar, langileak egiten duen ekarpen bera egiten baitu enpresak ere, eta horrek aurrezpen eta ongizate handiagoa eragiten du langile horien etorkizunean. Hori horrela, ekarpen sistema partekatu bat egituratzen da, eta, ondorioz, erretiratzeko unean, enpleguko gizarte aurreikuspeneko tresna horien bidez emandakoaren bikoitza lortzen du pertsona bakoitzak.

Finantza segurtasuna. Enpleguko BGAEek finantza segurtasuna ematen diete langileei, erretirorako aurrezteko mekanismo egituratu eta profesionalizatu bat eskaintzen baitiete.

Elkartasuna eta mutualitatea azpimarratzea. Enpleguko BGAEak elkartasun eta mutualitate printzipioetan oinarritzen dira, eta partaideek gizarte aurreikuspeneko sistemaren arriskuak eta onurak partekatzen dituzte. Horrek ederki islatzen ditu euskal gizartearen balioak, historikoki balioetsi baititu kideen arteko lankidetzak eta elkarrekiko laguntza.

Bilakaera eta egokitzapena. Urteetan zehar, BGAEek bilakaera izan dute, eta egokitu egin dira ingurune ekonomiko eta sozialera, baita legegintzako inguruabarretara ere. Zerbitzu eta produktu sorta areagotu dute, eta, erretiroaz gainera, asetzen dituzte gizarte aurreikuspeneko hainbat premia ere, hala nola baliaezintasuna, heriotza, mendekotasuna, eta abar.

Lehentasunezko enpleguko BGAEak. Ildo horretan egin den azken aurrerapena lehentasunezko enpleguko BGAEak sortzea izan da. Horrek plus bat du enpleguko BGAE arrunten aldean; izan ere, eragin handiagoa dute langileen ongizatean eta etorkizunean, eta konpromiso handiagoa dute, gainera, enpresen aldetik. Ildo horretan, pizgarri fiskal bat mantentzea funtsezkoa izan liteke horrelako tresnak sustatzeko.

Gizarte aurreikuspenaren II. zutabea, erreferentziazko zutabe gisa. Europan, gizarte aurreikuspenaren II. zutabearen aldeko apustu zabala egiten da (enpleguko BGAEek osatutakoa), horrek osatzen baitu ondoen I. zutabea (pentsio publikoak), eta finantza arau seguruagoen eta atseginagoen mende baitago, bereziki kostuak aurrezteari eta komisiok murritzeari dagokionez. Horien aurrean, III. zutabea ageri da, BGAE pribatuak osatua: horiek indibidualki egiten dira, finantza sektoreari dagozkio, eta ez dituzte elkartasun eta mutualitate tasun horiek; beraz, berrikusi egin beharko lirateke gaur egun dituzten zerga pizgarriak.

Aitorpen instituzionala. Gipuzkoako BGAEek aitorpen instituzional eta arautzaile sendoa dute, eta horrek konfiantza eta segurtasuna ematen die partaideei. Eusko Jaurlaritzako Gizarte

Segurantzaren eta Gizarte Aurreikuspen Osagarriko Zuzendaritzak gainbegiratzen eta arautzen ditu, eta horrek sendotasuna eta gardentasuna bermatzen ditu.

Laburbilduz, Gipuzkoako BGAEen tradizioa lurraldeko gizarte eta ekonomia sarearen parte integrala da, eta ederki islatzen ditu euskal gizartearen elkartasun, partaidetza eta mutualitate balioak. Erakunde horiek garrantzia izan dute hamarkadetan zehar langileen eta haien familien finantza plangintzan eta ongizatean. Alde horretatik, eta Europa mailan erreferentziazko herrialdeek egiten duten bezala, Gipuzkoan ere portaera horiek babesten jarraitu behar du fiskalitateak, gizarte osoaren onura handiagoa ekartzen baitute.

5. erronka. Talentua erakartzea.

Gipuzkoa garapen ekonomiko eta bizi kalitate handiko lurraldea bada ere, erronka handia du ehun ekonomikoaren beharrak asetzeari dagokionez.

Profil jakin batzuen beharra sektore batzuetan. Ekonomia dibertsifikatua eta lehiakorra izan arren, sektore batzuk ez dira gai beren eskari guztia asetzeko.

Prestakuntzarekin bat datorren enplegua aurkitzeko zailtasunak. Baliteke profesional batzuek prestakuntza espezifiko izatea eta Gipuzkoan ez aurkitzea beren trebetasun eta jakintzeekin bat datorren lan aukerarik. Horrek talentu ihesa eragin dezake, hau da, espezializazio eremu jakin horretan eskaera handiagoa dagoen eskualdeetara joatea.

Etxebizitzaren kostua. Etxebizitza arrazoizko prezioan ez izatea —batez ere alokairuan— oztopo izan daiteke Gipuzkoako eremu batzuetan talentua erakartzeko, bereziki profesional gazteentzat eta familientzat. Lanbide profil jakin batzuek denbora eremu mugatu baterako etxebizitza behar izaten dute, eta denbora hori kontuan hartu behar da Gipuzkoak erreferentziazko enpresa proiektuak garatzeko helmuga erakargarria izan nahi badu. Etxebizitza egokia eta arrazoizko prezioetan eskuratzea funtsezko faktorea da Gipuzkoara etortzeko erabakia hartzean.

Beharretara egokitutako zerbitzuak. Gipuzkoak atzerriko edo beste autonomia erkidego batzuetako profesional berrien eta haien familien beharretara egokitutako zerbitzuak izatea (hala nola hizkuntzaren arloan errefortzua duten eta aniztasuna bermatzen duten ikastetxe publikoetan plaza nahikoak izatea) lagungarria izango litzateke gure lurraldera talentu handiagoa erakartzeko.

Ezarpen espazioak. Erabakigarria da lehiakortasunari dagokionez espazio egokiak gaitzen jarraitzea, Gipuzkoan erreferentziazko enpresa proiektuak kokatzeko.

Konektibitatea. Beharrezkoa da Gipuzkoak bide azpiegitura eta garraio irisgarriak, jasangarriak eta interkonektatuak izatea, bai probintzia barruan bai ingurukoekin ere, ongi konektatuko gaituztenak eta profesionalen mugikortasuna erraztuko dutenak, baldin eta Gipuzkoa proiektu berriak ezartzeko eta profesional berriak erakartzeko kontuan hartu beharreko aukera izatea nahi badugu.

Soldatak Europakoekin alderatuta. Gipuzkoako eta, oro har, Europako hegoaldeko soldatak baxuagoak dira kontinenteko beste herrialde batzuekin alderatuz gero, eta hori hobetu egin

behar da Gipuzkoara talentua erakarri nahi badugu (izan ere, kasu gehienetan, ordura arte kobratzen zen soldataren zati bati uko egin behar izaten zaio), baita lehendik zegoenari eutsi nahi badiogu ere.

Nazioarteko ikusgarritasunik eza. Nahiz eta Gipuzkoak bizi kalitate eta garapen ekonomiko handia izan, baliteke nazioartean ez izatea beste eskualdeek duten ikusgaitasun bera. Horren ondorioz, agian ez da hain ezaguna atzerrian lan aukerak bilatzen dituzten kanpoko profesionalen artean.

Arazo horiei aurre egiteko, Gipuzkoak badu talentua erakartzeko araubide fiskal bat 2018tik, eta, denborak aurrera egin ahala, erregimen hori arrakasta lortzen ari da. Hori horrela, komenigarria da bide horri eustea, COVID-19aren pandemiak ez baitu ahalbidetu araubide hori egoera normaletan balioestea denbora tarte luze batean. Zalantzarik gabe, gainera, oraindik ere indartu beharreko eremu bat da.

Neurri fiskalez aparte, Gipuzkoan hobetu egin beharko dira talentua erakartzeko beste politika batzuk. Beste herrialde batzuek jarduera hauek egin dituzte:

- Gorabidean dauden sektore ekonomikoen garapena sustatzea, hala nola asistentziala eta teknologikoa, lan aukera gehiago sortzeko.
- Etxebizitza errazago eskuratzeko politikak ezartzea.
- Gipuzkoa nazioartean sustatzea, lan egiteko eta bizitzeko helmuga erakargarri gisa.
- Gipuzkoan sartu nahi duten profesional atzeritarrei prestakuntza eta laguntza emateko programak eskaintzea.
- Konektibitatea eta azpiegiturak hobetzea, lurralde barruko eta inguruko beste eremu batzuekiko mugikortasuna errazteko.
- Langileek merkataritza-sozietateak eskura ditzaten bultzatzea.

6. erronka. Berrikuntza eta lehiakortasuna.

Gipuzkoa gaur egun estatuko lurralderik aurreratuena da I+Gan, eta lau hamarrenean baino gehiagoan gaingitzen du Europar Batasuneko batezbestekoa. Hori horrela izatearen arrazoia da, neurri batean, apustu jarraitua egin duela denboran zehar: garrantzitsuena ez da izan dirua bakarrik, baizik eta politika publikoen egonkortasuna, segurtasun juridiko eta fiskala, enpresen eta zentro teknologikoen beharrianekiko hurbiltasuna eta zentrookin etengabe izaniko komunikazioa, bai haien beharrak zein diren jakiteko, bai haien ikuspegia kontuan hartzeko, Gipuzkoak bere etorkizuna eraikitzeke jarraitu beharreko estrategiari begira.

Gipuzkoako I+G+Ba funtsezko osagaia da ekonomia eta garapen estrategian. Gipuzkoan nabarmena da berrikuntza ekosistema sendoa; lehiakortasuna, hazkunde ekonomikoa eta enpleguaren sorrera bultzatzen ditu. I+G+Baren ezaugarri nabarmenak Gipuzkoan:

Abangoardiako ikerketa azpiegitura. Gipuzkoan ikerketa zentro, laborategi eta parke teknologiko ugari daude, zeinak abangoardian baitaude hainbat arlotan, hala nola nanoteknologian, biomedikuntzan, bizi zientzietan, konputazio kuantikoan, energia berrietagarrietan eta industria aurreratuan. Adibide nabarmenak dira, besteak beste, Nanozientziako Ikerketa Kooperatiboko Zentroa (CIC nanoGUNE), Donostia International Physics Center, Gipuzkoako Parke Zientifiko eta Teknologikoa (Miramon) eta IK4 Zentro Teknologikoa.

Lankidetza publiko-pribatua. Lankidetza handia da sektore publikoaren, unibertsitateen, ikerketa zentroen eta enpresa pribatuen artean Gipuzkoan. Lankidetza horren ondorioz, ugari dira I+G+Bko proiektu bateratuak, teknologia transferitzeko programak, berrikuntza partzuergoak eta berrikuntza ekosistemako eragileen arteko sinergia sustatzen duten bestelako mekanismoak.

Enpresa berritzaileen presentzia. Gipuzkoan enpresa berritzaile eta teknologiko ugari daude, eta I+G+Bko jardueretan inbertitzen dute beren negozio estrategiaren barruan. Enpresa horiek sektore ugarian jarduten dute, hala nola automobilgintzan, industrian, osasunean, elikaduran eta teknologian, eta ekarpena egiten diete eskualdeko enpresa ehunaren dinamismoari eta lehiakortasunari.

Nazioarteko sareetan parte hartzea. Gipuzkoak aktiboki parte hartzen du ikerketaren eta berrikuntzaren alorreko nazioarteko lankidetza sareetan. Horren barruan sartzen da Europako beste herrialde batzuetako eta munduko gainerako herrialdeetako erakunde eta enpresekin lankidetzan aritzea, bai eta Europar Batasuneko finantzaketa programetan parte hartzea ere, hala nola Horizonte European.

Hori horrela den heinean, Gipuzkoako I+G+Ba funtsezko osagaia da garapen ekonomikoko estrategian, eta, horren ondorioz, azken zazpi urteetan European portaera onena izan duen lurraldeetako bat bihurtu du. Hori ez da izan bide erraza edo azkarra, baizik eta I+G+Ba sustatzeko politika publikoen hamarkaden emaitza. Ildo horretan, komenigarria da sustapen ildo horri jarraitzea, begien bistakoak baitira emaitzak.

EUSTATEk landutako datuen arabera (2022. urteari buruzkoak, azkena argitaratuak), Gipuzkoak 777 milioi pasatxo inbertitu zituen I+Gan 2022an; hau da, BPGaren % 2,75. Zenbateko hori askoz ere handiagoa da Euskadiko % 2,08 baino, eta oso gertu dago Danimarka, Finlandia eta, oro har, erreferentziazko herrialdeetan inbertitzen dutenetik, azken zazpi urteetan nabarmen murriztu baita bi herrialde horiekiko arrakala. Aurrekoa gorabehera, Europako eskualde eta inguru aurreratuenen ereduari jarraitu behar zaio, eta orpoz orpo lan egin behar da Gipuzkoako eragile politiko, ekonomiko eta sozialekin eta zentro teknologikoekin, 2027ko ekitaldirako BPGaren % 3,2ko gastu tasa lortzeko I+G+Ban; hala, I+G+Baren alorrean hazteko eta inbertitzeko potentzial handiena duten alor teknologikoak haztearen aldeko apustua egin behar da.

Horri gehitu behar zaio gero eta handiagoa dela Gipuzkoako *start up* ekosistema, eta horiek lagundu egiten dutela berrikuntzan, garapen ekonomikoan eta enplegua sortzen. Indar hartzen ari diren enpresa horiek sektore ugarian jarduten dute, hala nola teknologian, biomedikuntzan, bizi zientzietan eta zainketetan. Horrenbestez, ederki islatzen dute lurraldearen espiritu

ekintzailea eta gaitasun berritzailea. Gipuzkoak tresna garrantzitsuak ditu enpresa horiek sustatzeko.

Parke teknologikoak eta *coworking* guneak. Gipuzkoak parke teknologikoak eta *coworking* guneak ditu, eta azpiegitura eta laguntza eskaintzen dituzte *start up*ok garatzeko. Azpimarratzekoak dira Gipuzkoako Zientzia eta Teknologia Parkea (Miramon) eta han kokatutako enpresa inkubagailuak eta azeleragailuak, hala nola BIC Gipuzkoa —erreferentzia estatuan—, edo Berri-up, Europako azeleragailuen zerrendan 17. ageri dena, *Financial Times* egunkariaren arabera.

Laguntza instituzional eta finantzarioa. Gipuzkoako erakunde publikoek, hala nola Eusko Jaurlaritzak, Foru Aldundiak eta udalek, hainbat programa eskaintzen dituzte ikerketa zentroei, teknologia-parkeei, unibertsitateei, *start upei* eta I+G+Bekin lotutako mota guztietako enpresei finantza laguntza eta aholkularitza emateko. Horren barruan sartzen dira berrikuntza proiektuetarako dirulaguntzak, maileguen bidezko finantzaketa eskuratzea eta prestakuntzako eta enpresa-garapeneko programa jasagarriak.

Lankidetzak ikerketa zentroekin eta unibertsitateekin. Gipuzkoako *start up*ak ikerketa zentroekin eta unibertsitateekin lankidetzan aritzen dira. Lankidetzak horren bidez, ezagutza espezializatuak, teknologia berritzaileak eta *networking* aukerak eskuratzen dira hainbat arlotako adituekin.

Sektore aniztasuna. Gipuzkoako *start up*ek sektore mota askotan jarduten dute, besteak beste informazioaren eta komunikazioaren teknologian (IKT), biomedikuntzan, konputazio kuantikoan, energia berriztagarrian, elektromugikortasunean, 4.0 industrian, elikaduran eta nekazaritzan. Aniztasun horrek erakusten du Gipuzkoak baduela gaitasunik berrikuntza jarduerak ekonomikoko askotariko arloetan bultzatzeko.

Nazioartekotzea. Gipuzkoako *start up* askok nazioarteko ikuspegia dute hasieratik, eta merkatu globaletara hedatzea dute helburu. Horretarako, nazioartekotze programetan, azoketan eta nazioarteko ekitaldietan parte hartzen dute, eta itun estrategikoak lortzen dituzte beste herrialde batzuetako enpresa eta erakundeekin.

Pizgarri fiskalak. Gipuzkoa puntako lurraldea da *start up*ak sustatzera bideratutako ekintzailetzarako pizgarri fiskalak ezartzeko orduan; lehenik eta behin, oztopoak ezabatzen ditu, eta, ondoren, fiskalitatea egokitu egiten du horrelako proiektuak sustatzera. Izan ere, proiektu horiek, hazteko potentzial handia duten arren, arrisku oso handia izaten dute, eta, horregatik, zailtasun finantzario handiak izaten dituzte lehen urteetan. Zehazki, araubide berri bat dute entitate berritzaile sortu berrien sustatzaileentzat, beren lan-etekin osoen % 30eko zerga-arintzarekin, baina neurria hobetu liteke emakumeen aldeko diskriminazio positiboko neurriekin, sektorean finantza-zailtasun handienak dituztenak direlako.

Tokiko industria inbertitzailea. Berrikuntzan eta ekintzailetzan erreferentzia diren Europako herrialdeek, hala nola Danimarkak edo Suediak, tokiko inbertsio industria garrantzitsua dute, eta horrek lagundu egiten die ekintzailetza oinarria hazten. Hori da ingurune berritzaile arrakastatsu bat sortzeko eta maila globalean baldintza berdinetan lehiatu ahal izateko giltzarrietako bat.

Gipuzkoako start upen ekosistemak hazkunde nabarmena bizi du. Europar puntako proiektuen sorrera areagotzen ari da azken urteotan. Start up horiek berebiziko garrantzia dute lurraldearen berrikuntza eta garapen ekonomikoa sustatzeko, eta etorkizunean ere Gipuzkoak arrakasta eta lehiakortasuna lortzen lagunduko dutela espero da. Horregatik, beharrezkoa da sektore publikoak horrelako enpresak babesten jarraitzea eta, aldi berean, lurraldean irauteko konpromisoa eskatzea.

7. erronka. Desberdintasuna murriztea.

Lehen adierazi bezala, Gipuzkoa da Europa mailan azken urteetan desberdintasunak murriztea lortu duen lurraldeetako bat. Ekonomia indartsu baten alde egiteko, eta ekonomia horrek desberdintasunak murrizteko balio dezan, beharrezkoa da ekitatea, berdintasuna eta gizarte-kohesioa sustatzen dituzten politika publikoak aurrera eramaten jarraitzea; horrenbestez, neurri fiskaletan sakondu behar da, politika publikoen multzoarekin batera joan daitezen, politika publiko horiek egoera ahulean eta gizarte-bazterketako egoeran edo arriskuan dauden pertsonen bizitza hobetzera zuzenduta baitaude, eta administrazioak pertsona horiek laguntzen ari baitira.

Hala, errenta txikiak eta ertainak artatu behar dira etorkizuneko erreforma fiskalaren bidez, Gipuzkoako testuinguru inflazionista kontuan hartuta, eta ahalegin handiagoa egin behar da gutxien dutenekin eta, ondorioz, krisiaren ondorioak gehien pairatzen dituztenekin, ahalegin handiagoa eskatuz gehien dutenei.

Baina desberdintasuna beste modu batzuetan ere murriztu daiteke. Adibidez:

a) Enpresen eta gizarte ekonomiaren eginkizuna Gipuzkoan.

Enpresek eta gizarte ekonomiak Gipuzkoan duten eginkizuna da desberdintasunak murrizteko ardatz nagusietako bat.

Gipuzkoak enpresa txiki eta ertainen sare zabala du, eta aspaldian errota dago lurraldeko kide izatearen sentimendua (lan sozietate anonimoak, kooperatibak eta langileen aldetik sozietateen kapitalean parte hartzeko prozesuak gauzatu dituzten enpresak izan daitezke horren adierazgarri nagusiak). Elementu horiek biziki garrantzitsuak dira aberastasuna sortzeko eta lurraldearen kohesiorako. Hori dela eta, beharrezkotzat jotzen da langileek enpresan duten partaidetza fiskalki babesten jarraitzea.

2002an, Europako Batzordeak iritzi zion langileen parte hartze finantzarioa funtsezko oinarrietako bat dela Europako eredu soziala gauzatzeko. Enpresa eredu hori inklusiboagoa eta partizipatiboagoa da, eta langileek enpresan parte hartzeak abantaila asko eskaintzen ditu: langileen eta enpresaren arteko elkarrekiko konpromisoari laguntzea, lan harremanen malgutasun eta demokratizazio handiagoa, enpresek biziraupen handiagoa izatea langileen parte hartze finantzarioarekin, eta enpresak lurraldean gehiago errota daitezen lortzea.

Enpresen lehiakortasunean, funtsezko elementua da gizakien garapen pertsonala eta bizi garapena lerrokaturik egotea erakundeetako garapen profesionalarekin.

Enpresak, oro har, eta gizarte ekonomiak, bereziki, eginkizun ukaezina dute desberdintasunak murrizteko eginahalean. Txosten honetan aipatu den bezala, Gipuzkoako langabezia 2015ean % 13,0 izatetik 2023an % 5,4 izatera igaro da. Murrizketa horrek eragin zuzena izan du GINI indizeak aldi horretan bertan izan duen hobekuntzan, eta Gipuzkoa oso posizio onean kokatu du European alderdi horri dagokionez, nahiz eta desberdintasunen murrizketa hori ez den iristen zailtasun handienak dituzten sektoreetara, pobrezia-egoerak kroniko bihurtzeko arriskua baitago.

Ondorioz, kalitatezko enplegua sortzen duen ekonomia indartsu eta sozialki kohesionatua da lurralde bateko desberdintasunak murrizteko errezeta nagusia. Aurrekoaz gainera, Gipuzkoako soldatek azken sei urteetan (hau da, 2017-2022 aldian) izan duten bilakaera aztertuz gero, soldata-dezilak kontuan hartuta, ikusten dugu soldata baxuenen % 70ek KPIa gainditzen duen soldata-igoera izan duela aldi berean.

Taula. Soldata igoera dezilen arabera.

Incremento salarial	2017/2022
D1	46,3
D2	30,72
D3	27,35
D4	20,46
D5	17,38
D6	16,49
D7	14,68
D8	13,22
D9	12,2
D10	13,19
Media	17,06
Inflación	14,01

Iturria: Gipuzkoako Foru Aldundia

Soldaten igoera jarduera ekonomikoaren eta politika publikoen ondorio da, eta eragin zuzena du lurraldeko herritar guztien ongizate estatua hobetzeari dagokionez.

b) Gipuzkoa erreferentzia da langileek enpresan parte hartzeari dagokionez.

Ikusi dugu gizarte ekonomia eta langileek enpresan duten parte hartzea Gipuzkoako lan kulturaren alderdi garrantzitsua dela. Ikuspegi horren jatorria lurraldean errotuta dagoen tradizio kooperatibista da, enpresaren eta lanaren kulturen sarturik dagoena; izan ere, enpresa partaidetua aukera erreala da Gipuzkoan, eta parte hartzeko zenbait moduren bidez egituratzen da.

Partaidetza kultura sustatzea. Oro har, langileek enpresan duten parte hartzea balioesten duen lan kultura sustatzen da Gipuzkoan, eta, elkarrikeria irekia ez ezik, zuzendaritzaren eta langileen

arteko lankidetzak ere bultzatzen dira. Hori lagungarria izan daiteke lan giro inklusiboagoa, motibatzaileagoa eta emankorragoa lortzen.

Enpresaren jabetzan parte hartzea. Zalantzarik gabe, langileak enpresan inplikatzeko modua lan egiten duten enpresaren kapitalean parte hartzea da. Horrek jauzi kualitatibo bat eragiten du proiektuarekiko inplikazioari dagokionez, eta, gainera, proiektuaren emaitzaren parte bihurtzen du.

Irabazien banaketan parte hartzea. Aurrekoaren ondorio zuzen bat da enpresaren kapitalean parte hartzen duten langileek ere parte hartzen dutela enpresaren irabaziak banatzean, eta hori pizgarri gehigarri bat izan daiteke langileek enpresaren arrakastarekiko duten motibaziorako eta konpromisorako.

Langileen parte hartzearen eta onurak lortzearen bidez enpresa proiektuarekiko konpromisoa funtsezkoa da enpresak arrakasta eta jasagarritasuna izateko. Langileek, enpresa proiektuarekin inplikaturik eta konprometiturik sentitzen direnean, motibazio handiagoa izaten dute, produktiboagoak dira eta ekarpen handiagoa egiten dute enpresaren hazkundera eta garapenera. Zalantzarik gabe, langileek enpresan parte hartzeak onura hauek eragiten dizkie bi alderdiei:

Kide izatearen sentimendua. Langileek erabakiak hartzen, enpresa kudeatzen eta mozkinen banaketan parte hartzeko aukera dutenean, erakundearekiko kidesun handiagoa garatzen dute. Identifikatu egiten dira enpresaren helburu eta balioekin, eta horrek dedikazioz eta konpromisoz lan egiteko ahalduztzen ditu, erabakiak hartzen eta gatazkak konpontzen inplikatu baitira, etengabeko hobekuntza laguntzeko, eta horrek erronkei aurre egitea eta enpresa-proiektuaren arrakasta lortzea ahalbidetzen du.

Ahalduztzea eta autonomia. Langileek enpresan parte hartzeak ahalduztze eta autonomia sentimendua ematen die beren lanean. Baloratuak eta errespetatuak sentitzen dira, eta, horren ondorioz, erantzukizun handiagoak hartzen dituzte eta lanari ekiten diote beren lan eremuetan prozesuak eta emaitzak hobetzeko.

Trebetasunak eta ezagutzak garatzea. Enpresan parte hartzeak aukera ematen die langileei lidergo trebetasunak garatzeko, taldean lan egiteko, arazoak konpontzeko eta erabakiak hartzeko. Horrek profesionalki haztea ahalbidetzen die, bai eta ekarpen handiagoa egitea ere enpresa proiektuaren arrakastari.

Etengabeko hobekuntzarekiko konpromisoa. Enpresa proiektuarekin konprometiturik dauden langileak prestuago daude ideia berritzaileekin laguntzeko eta etengabeko hobekuntzako ekimenetan parte hartzeko. Prest egoten dira *feedback*a jasotzeko eta lankideekin eta nagusiekin lankidetzan aritzeko, enpresak aurre egin beharreko erronkei soluzio eraginkorrak aurkitzeko bidean.

Lan kultura positiboa sustatzea. Langileek enpresan parte hartzeak lan kultura positiboa sustatzen du, konfiantza, errespetu eta lankidetzan oinarritua. Horrek lan giro

osasungarriagoa eta motibatzaileagoa lortzen laguntzen du, eta enplegatuak baloraturik eta babesturik sentitzen dira garapen profesional eta pertsonalean.

Laburbilduz, langileek enpresan parte hartzea funtsezkoa da enpresa proiektuarekiko konpromisoa sustatzeko. Langileek, proiektuaren parte integral sentitzen direnean eta arrakasta lortzen modu nabarmenean laguntzeko aukera dutenean, motibazio handiagoa izaten dute, produktiboagoak dira eta inpaktu positiboagoa dute enpresaren hazkundean eta garapenean.

Eredu horrek beste irabazi mota batzuk ere ekartzen ditu, onuragarriak gizarte osoarentzat eta funtsezkoak Gipuzkoako Lurralde Historikoarentzat.

Enpresak errotzea. Langileek enpresan parte hartzeak zuzenean eragiten du enpresak lurraldera atxikitzea; izan ere, langileak proiektuan inplikatzeko palanka gisa esku hartuko du haien kokapenari eusteko, eta hori oztopo argia da gure enpresak deslokalizatzeko edo hirugarren inbertitzaileek hemengo enpresak eskuratzeko.

Erabakiguneak Gipuzkoan jarraitzea. Arrazoi beragatik, enpresak lurraldean sustraitzeak erabakiguneak beste inora ez joatea esan nahi du; izan ere, akziodunak (langileak) bizi diren lekuan jarraituko du erabakiguneak, eta horrek lurraldearekiko atxikimendu handiagoa eta errotze sakonagoa eragiten ditu.

Langileen artean berdintasuna sortzea. Langileen partaidetza duen enpresa batek soldata arrakala txikiagoak izaten ditu enpresaren barruan gehien eta gutxien irabazten dutenen artean, eta, beraz, eredu hori ezartzeak eta orokortzeak berdintasunezko gizarte bat eragiten du, hau da, herritarren arteko desberdintasun txikiagoak dituen gizarte bat.

Aberastasuna birbanatzea. Aurrekoarekin lotuta, langileek enpresan parte hartzeak berekin dakar enpresa aberastasuna bazkide kapitalisten artean eta enplegatutako langile guztien artean banatzea, eta horrek enpresa aberastasuna gizarte osoan gehiago banatzea dakar.

Erabakiak azkar hartzea. Partaidetza ereduaren duten enpresetan, batez ere krisi ekonomikoen garaian, azkarrago eta malguago hartzen dira akordioak. Aldez aurretik konfiantza izateak eta enpresaren egoera ezagutzeak lagundu egiten du erabakiak azkarrago barneratzen, erakundeetan enpresa zailtasunak azaleratzen direnean.

Lidergoa. Langileen partaidetza duten enpresen, kooperatiben edo lan sozietate anonimoen gainean uste izan daitekeena gorabehera, esperientzia enpirikoak erakusten du horrelako sozietateetan enpresa zuzentzen duenak edo dutenek lidergo sendoa izatea funtsezko elementua dela proiektuak arrakasta izan dezan.

Gipuzkoan, beti sustatu izan da langileek enpresan parte hartzea, nahiz eta 2016tik aurrera bultzatu den partaidetza hori gehien. Horrek ekarri du etengabe handitzea ukituriko enpresen eta langileen kopurua. Hori dela eta, bide fiskal horretatik jarraitu behar dugu, lehendik ditugun pizgarri fiskalak sustatzen eta, herri-erronka gisa ezarriko duen politika integral baten baitan.

8. erronka. Genero berdintasuna.

Eustaten datuen arabera, Gipuzkoako biztanleen %51,19 emakumeak ziren 2023an. Gure lurraldean emakumeen eta gizonen arteko benetako berdintasuna lortzeko, neurriak hartu behar dira, baita arlo fiskalean ere.

Zerga politika da Gipuzkoak aberastasuna lurraldeko herritarren artean banatzeko duen tresnetako bat. Horregatik, oso garrantzitsua da genero-ikuspegia azpimarratzea zergak diseinatzean, aplikatzean eta ondoren baloratzean, emakumeen eta gizonen arteko desberdintasun guztiak ezabatzen laguntzeko sortu eta aplikatu behar direlako.

Gipuzkoa behartuta dago gizonen eta emakumeen arteko berdintasun printzipioa aplikatzera, hala xedatzen baitute Amsterdamgo Itunak, Konstituzioak eta Emakumeen eta Gizonen Berdintasun Eragingarrirako 3/2007 Lege Organikoak. Horregatik, kontuan hartu behar da generoaren eragin diferentziala Gipuzkoako etorkizuneko erreforma fiskala planteatzerakoan.

Gipuzkoa behartuta dago gizonen eta emakumeen arteko berdintasunaren printzipioa aplikatzera, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2005 Legearen eta Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako martxoaren 9ko 2/2015 Foru Arauaren bitartez. Hori dela eta, Gipuzkoako etorkizuneko zerga-erreforma planteatzeko orduan kontuan hartu behar da genero-inpaktu diferentziala.

Gaur egun Gipuzkoan emakumeen eta gizonen artean dagoen soldata-arrakalak eragotzi egiten du errealtate hori zuzentzera bideratutako zerga-neurrien benetako irismena modu frogagarrian aztertzea, baina horrek ez du oztopo izan behar emakumeen aldeko diskriminazio positiboko neurriak ezartzeko: garrantzitsuena eta premiazkoa da arrakala hori murriztea, eskura ditugun tresna guztiekin.

Gaur egungo gizartea askotarikoa da, eta, beraz, etorkizuneko erreforma fiskalean Gipuzkoako errealtatera egokitzen diren familia ereduak azertu behar dira.

Hori dela eta, ondorioen txosten honek nabarmendu nahi du garrantzitsua dela eztabaidaren erdigunean jartzea emakumeen eta gizonen benetako berdintasunaren printzipioa bermatzeko betebeharra, zerga politika diseinatzean eta aplikatzean.

Aitortu behar da PFEZaren egungo diseinuan genero joerak ageri direla. Adibidez:

- Soldata egituraren generoaren ondoriozko joerak.
- Baterako tributazioa eta bigarren hartzailearen zigorra (normalean emakumea).
- Guraso bakarreko familiak pobreagoak izaten dira, eta gehienetan emakumeak izaten dituzte buru.
- Zenbait kenkari eta hobari aplikatzearen ondoriozko joerak.

Horregatik, lehenik eta behin, egungo kenkarien eta hobarien egokitasuna aztertu behar da, erreforma fiskal honek dauden desberdintasunak arintzeko neurriak har ditzan. Batez ere, errenta baxuetan izan behar du inpakturik handiena; izan ere, errenta maila horretan daude kontzentratuta emakumeak, eta, aldiz, gizonak dira nagusi maila ertain eta altuetan. Era berean, berrikusi egin behar dira gaur egun ditugun tributazio eredu indibidualak eta bateratuak; izan ere, tributazio bateratuaren bidez, penalizatu egiten da bigarren hartzalea —ia beti emakumea—, errenta ezkontidearen errentaren gainean metatzen baita, eta berez legozkiokeenak baino zerga tasa handiagoak aplikatzen baitzaizkio. Gainera, kontuan izan behar da eredu horrek familia tradizionala indartzen duela eta desestimulatu egiten duela emakumea lan merkatuan sartzea; ondorioz, emakumea lan merkatuari lotutako eskubide sozialetarako sarbiderik gabe geratzen da.

Zerga indibidualizatzean oinarritutako eredu baterantz jo behar da, gizonen eta emakumeen artean baldintza bidezkoagoak eta berdintasunezkoagoak sortzeko, Europako Batzordeak gomendatzen duen bezala.

Baina bada beste genero joera bat ere, baterako aitorpena egiteagatiko murrizketan alde batago segun eta bi gurasoko familia bat den edo guraso bakarreko familia bat den —azken horietan, emakumeak izaten dira buru normalean, eta pobreagoak izaten dira—.

Genero ikuspegitik, badira zenbait kenkari eta hobari, neurriz kanpo mesedea egiten dietenak errenta handienak dituztenei; horrenbestez, ez zaie mesederik egiten gehien behar dutenei, eta ez da ahaztu behar emakumeak direla errenta baxuen barruan daudenak. Ez da ahaztu behar, orobat, badirela beste kenkari mota batzuk ere, eta kasu horietan ere gizonak jasotzen dituztela onura handienak, eta ez emakumeek. Horregatik guztiagatik, irizten diogu etorkizuneko erreforma fiskala aprobetxatu egin behar dela horiek guztiak berrikusteko eta genero-arrakalak ezabatzeko.

Baina pertsona fisikoen errentaren gaineko zergan (PFEZ) zentratzeaz aparte, aztertu behar da gainerako foru zergetan ere ba ote den genero eraginik; era berean, pizgarri fiskalak sortzen saiatu behar da, emakumeen aldeko diskriminazio positiboaren bidez, bi generoen artean benetako berdintasuna lortzeko.

9. erroka. Kontziliazioa.

Kontziliaziorako eskubidea hobetzea da beste erroka bat. Azken urteotan, kontzientzia maila handiagoa ageri da gai horri dagokionez, eta neurriak hartu behar dira oreka handiagoa lortzeko pertsona guztiak edozein adinetan eta behar dutenean zaintzearen eta kontziliazioaren artean. Horrek gizarte erantzukideagoa, aurreratuagoa, bidezkoagoa eta berdinzaleagoa ekarriko luke.

Zaintzen inguruko erantzunkidetasun kolektiboa eta kontziliazioa hobetzea funtsezkoa da pertsona guztiei, zainketak behar dituztenean, zainketa publiko komunitarioko sistema bat bermatzeko, pertsona guztientzako gizarte ongizatea sustatzeko, zaintzarako eta genero-berdintasunerako eskubideak bermatzeko eta gizarte kohesioari eusteko. Horren bidez, hauxe lortu nahi da:

Langile-klasearen oinarrizko eskubideak babestea, eta ziurtatzea lan baldintzek lan- eta gizarte-garapen osoa eta bizitza duinak izatea ahalbidetzen dutela, lanbide hazkunderako eta aurrerapenerako aukerei kalterik egin gabe

Lan eremuan gizonen eta emakumeen arteko aukera berdintasuna sustatzea, zaintzako lanetan erantzunkidetasuna eta kontziliazioa erraztuko duten eta generoan oinarritutako diskriminazio mota oro ezabatuko duten politikak eta neurriak gehiago bultzatuz.

Gizarte kohesioa sustatzea, neurriak erraztuz eta bultzatuz, langileek familia-bizitza kontziliatu ahal izan dezaten, zainketek eskatzen dituzten zereginen banaketan erantzunkide izan daitezen eta, aldi berean, lanean produktibitate handiena lor dezaten.

Jasangarritasun ekonomikoa eta enpresen lehiakortasuna bultzatzea, eta, bide horretan, aitortzea kontziliazioa bultzatzen duen lan inguruneek areagotu egiten dituztela langileen motibazioa, gogobetetasuna eta konpromisoa; horrek onurak ekarriko dizkie bai enpresei, bai ekonomiari, oro har.

Helburu horrekin, komeni da erantzunkidetasun eta kontziliazio handiagoa ahalbidetuko duten neurriak jasoko dituen araugintzako eta politika publikoen esparrua garatzea, eta alderdi horiei fiskalitate ere heldu behar zaie. Ildo horretan, kontziliazio politikei bultzada handiagoa ematea eta lan-malgutasuna, urrutiko lana edo mugikortasun geografikoa erraztea dira bizitza pertsonala eta profesionala kontziliatzen eta erantzunkidetzen lagun dezaketen elementuetako batzuk.

